

# TÜNKA ALKARTEA

## 2022 KO BARANTAILAKO MÜSIKA IKASTALDIK

\*\*\*6 - 10 urtetako HAURRAK\*\*\*

### 1. Ikastaldia - SALDOAN KANTATÜ (4 or)

Barantailako 21 et 22a, 10etarik - 12etara

Botza berotü, besteen botzekin alkartzen jakin. Botz adierazpenak osotü hatsaren hartzez. Solo, Tutti. Zonbait ñabardüra eta tinbre erabili. Kantü llabür edo miniatürak ikasi. Ahaide bat gogoz ikasi eta berriz eman.

\*\*\* ZOIN NAHI ADINEKOAK \*\*\*

### 2. Ikastaldia - MÜSIKA FAMILIAN (4 or)

Barantailako 21 et 22a, 15etarik - 17etara

Familian txostakatzeko egün bat: anai arrebekin, askazi edo etxeko batekin. Holaz gazteenek müsika konfiantxaz ezagützen ahal dükee eta gehitüek balia lezakee ausartzeko, tresnen iseatzeko eta algarrekin joiteko plazeraren partekatzeko.

\*\*\* 11 - 16 urtetako GAZTEAK \*\*\*

### 3. Ikastaldia - GITARRAREN INIZIAZIOEA (4 or)

Barantailako 23 et 24a, 10etarik - 12etara

Gitarra akustikoaren ozentazünaren ikertzea bai eta haren etxekitzeko manera desbardinak. Tresna akordatü. Lehen akordeak eta erritmo sinpleenak ezagütü, azkardüren markatzen ikasi, ahaide llabür bat jo.

*Ikastaldi hau hasiberrientako da. Partaideak beren gitarrarekin jiten ahal dira eta bestelan ere, leküan berean tresna bat ükenen düe.*

\*\*\* GEHITÜAK \*\*\*

### 4. Ikastaldia - ASMATÜ, INPROBISATÜ (4 or)

Barantailako 23 et 24a, 15etarik - 17etara

Tresna zonbaiten arteko asmatze libre baten jarraitzen ikasi (botz, piano, perküsiõne, akordeona, aize tresna eta beste). Hor trebatzen da besteek egin müsikari kasü egiten eta bere tresnako sonüen orekan sartzen. *Ikastaldia tresna akustiko oroer eta zoin nahi müsika jakintza mailari zabalik da.*

## Egütegia

### MÜSIKA - Barantailako ikastaldiak

	astelehena	asteartea	asteazkena	ostegüna
	21a	22a	23a	24a
10etari k 12etara	1. ikastaldia 6 - 10 urtetako haurrak  SALDOAN KANTATÜ (4or)		3. ikastaldia 11-16 urtetako gazteak  GITARRAREN INIZIAZIOEA (4or)	
pausa				
15etari k 17etara	2. ikastaldia zoin nahi adinekoak  MUSIKA FAMILIAN (4or)		4. ikastaldia gehitüak  ASMATÜ INPROBISATÜ (4or)	

### Argibide erabilgarriak

**Günea :** Kakotxa, Atarratzeko artista ateleria, Arhanpia karrikan, plazaren ta eskolaren artean.

**Kostü :** haur 20€ / gazte 25€ / gehitü 30€ / familia 40€

**Kidetze :** Tünaka alkartearen ikastaldiak kideentako baizik ez dira. 2021-2022 urteko kide saria bakotaren gustükoa da.

**Pakatzea :** sos idorrez edo xekaz Tünakaren izenean.

**Eramailleak :** Fleur eta Baptiste Eüskal-Herrian bizi diren artista eta erakasleek, alkarrekin eta urte zonbait hontan, eramaiten dütüe müsikaren eta idatziarekin lotü xede eta sorkuntzak.



**Esmarfona :** algarrekin izateko plazeraren ahal bezain ontsa gozatzeko gisan, artista ateleria esmarfonarik gabeko günea da. Ütz ezazü zure tresna etxen edo autoan eta haütü horren honartzeaz eskertzen zütügü.

### Nola izena eman ?

---> eramaileeri xüxenka

---> mailez : [ecire@tunaka.com](mailto:ecire@tunaka.com)

*Ikastaldian ez deno BETERIK izena agertzen, bada orano lekü eta izena eman daiteke.*